



## UNIBERTSITATE HEDAKUNTZAKO IKASTAROAK

### ALEMANA: LEHEN URRATSAK (1. ED.)

#### INFORMAZIO OROKORRA

---

**IKASTURTEA:** 2024/2025

**ARLOA:** Artea eta Humanitateak

**KREDITUAK:** 12,00 ECTS (\*) kreditu

**MATRIKULA TASA:** 165,00 € (Asegurua 4,00 €)

**ARDURADUN AKADEMIKOA:** Garbiñe Iztueta Goizueta

(\*) ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du.

#### AURKEZPENA

---

12 ECTS dituen ikastaroa, bi imoduluz osatutakoa (Aleman Hizkuntza I eta Alemanaren praktikak I), lehen seihilabetean eskaintzen dena (irailetik abendura). Astean 8 orduko ikastaroa da, orotara 120 ordu aurrez aurre izango dituen eta baita bere kasa egiteko atazak ere. Ikasleek derrigorrez bi moduluak egin behar dituzte ikasketa prozesuan aurrera egin ahal izateko. Helburua hasierako mailan (A1) alemanez komunikatzen ikastea da, metodologia aktiboaren bidez, ikaslea ardatz izango duena.

#### ZURE BILA GABILTZA

---

Zure bila gabiltza, alemanean lehen urratsak eman nahi badituzu zure graduoko ala graduondoko prestakuntza osatzeko. Baita lanean ari bazara ere eta prestakuntza osagarria nahi baduzu zure lanbidean lagunduko dizuna edota lan merkatuak dituen eskakizunetarako prestatzeko. Alemanarekiko jakinmina eta motibazio pertsonala baduzu ere ongiatorria zara. Metodologia dinamikoekin ikasi nahi baduzu, ardatz zu izango zarelarik, hau da zure lekua. Parte-hartzaileen gutxieneko kopurua 5ekoa izango da.

#### IRTEERA PROFESIONALAK

---

ALEMANA: LEHEN URRATSAK ikastaroak ikaslegoaren etengabeko prestakuntza ahalbidetzen du. Era berean etengabeko ikaskuntza sustatu nahi du unibertsitateko eta unibertsitateaz haragoko hartzaileren artean, alemanezko hasiberrientzat ikastaroa hau eskainiz.

## BALDINTZAK

---

Alemana ikasteko motibazioa duen edozein pertsonari aukera emango zaio.

## IRAKASKUNTZA

---

**HASIERA ETA AMAIERA DATA:** 2024/09/10-tik 2024/12/19-ra

**EMATEKO TOKIA:** Letren Fakultatea

**HIZKUNTZA:** Euskara + gaztelania

### ORDUTEGIA:

Ordua/Eguna	Astelehena	Asteartea	Osteguna
9:00-11:00	Aleman hizkuntza I		Aleman hizkuntza I
11:00-13:00		Alemanaen praktikak I	Alemanaen praktikak I

## INFORMAZIOA/IZEN-EMATEA

---

**SAIL EDO ORGANO ARDURADUNA:** Ingeles eta Alemaniar Filologia eta

Itzulpengintza eta Interpretazio Saila

**HELBIDEA:** Letren Fakultatea. Unibertsitateko Ibilbidea, 5. 01006 Vitoria-Gasteiz

**TELEFONOA:** 945 013 611

**POSTA ELEKTRONIKOA:** [garbine.iztueta@ehu.eus](mailto:garbine.iztueta@ehu.eus)

## MATRIKULA

---

**Matrikula on-line izango da.** Izena emateko epea **ekainaren 17etik irailaren 2ra** izango da (biak barne).

UPV/EHUn matrikulatuta ez dauden ikasleek ere ikasle-aseguru bat ordaindu beharko dute (4 €).

Ikasleek EHUko araudiaren araberrako hobariak izango dituzte, aldezturik eskatuta eta agiri bidez justifikatuta (mesedez izena emateko orduan agiria aurkeztu).

**Beranduenez irailaren 3an** pertsona bakoitzari onartua ala baztertua izan den jakinaraziko zaio posta elektronikoki bidez (izena ematean zehaztutakoa). Onartutako pertsonen irailaren **3tik irailaren 6ra** arteko epea izango dute matrikularen zenbatekoa eta, hala badagokio, aseguru ordaintzeko, transferentzia bidez.

- KUTXABANK: **ES88 2095 0292 9232 3900 8657**
- Kontzeptua: Ikaslearen izen-abizenak – ALEMANA LEHEN URRATSAK IKASTAROA

Epe hori igarota ordainketarik egin ez duenak ikastaroa egiteko eskubidea galduko du eta zerrendaren hurrenkeran onartuko dira ordezkioak.

Ordainketarako epea amaitu ondoren, ikastaroko koordinatzailea ikasle guztiekin posta elektronikoki harremanetan jarriko da ikastaroari ongi etorria emateko.